



# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
URKO APAOLAZA

Otzaurte (Gipuzkoa)

## Beunde, baso eta larre

Basoa aspaldi kolonizatu zuen euskaldunak, maneatu eta bere intereserako esplotatu. Aratz magaleko Beunden, pagoen soiltasunak harrituko du bisitaria. Txurruko puntaren soineko freskoa da basoa, eta artzain txabolak harkaitz zorrotzen artean ezkututzen dira.

Otzaurteko portua lerro batean dago, ur tantek orain Mediterraneora eta orain Kantaurira egiten duten horretan. Zegamatik edo Etxegarategatik iritsi daiteke bertara. Bide gurutzaketa horren pribilejioz eta San Adrianek Aizkorriri zulo bat egin zionari eskerrak, Otzaurte pasabide ezaguna izan da mandazain, basomutil eta artzainentzat.

Benta horretatik errepide batek eramango gaitu Beundeko (Beunda) atsedenekura. Toki paregabea da hau, berdin Aizkorriko malkar zorrotzak igo ondoren oinak belar-

rretan lasaitzeko, berdin otordurako, edo onddotarako. Lehenago taberna zegoen bertan ehiztarieneztat, orain etxolatxo bat familiaren eztat. Beundeko sarioian basoak eta larreek bat egiten dute; bata eta bestea chunka urteko bizikidetzaren irudi dira.

### Basoa: eremu zibilizatua

Piztia arriskutsuak zeuden inguru basatia zela uste zenuen? Ba ez. Ukitu gabeko lur misteriozua? Ezta ere. Euskal Herrian ez da, aspalditik, Amazonasik izan, baso “zibilizatua”

baizik. Ebakidura bakoitzak badu bere logika, adarren itxurak zentzua. Forma bakoitzean gizakiaren eskua dagoela konturatu da norbera.

Erdi Aroan baso gehiena zuhaitz tantaiez josia zegoen arren, gero eta ugariagoa zen txara motakoa, ipurditik behin eta berriz mozten zena egur-ikatz lortzeko. Burdinolentzat preziatua zen material hori eta horregatik zen hain ugaria; XVI. mendeko Gipuzkoako probintziaren herena txaradiz beterik zegoen.


Baina ontzigintzak, burdingintzak ez bezala, enbor sendo eta

bereziak behar zituen. Horregatik, Aro Modernoan pago mugarrotua zabaldu zen izugarri, zenbait lekutan hegemoniko bihurtu arte. Enborra lurretik bi metrora lepatzen zuten eta sistema horrekin abereek ez zituzten kimu berriak jaten. Izan ere, demografiaren presioa zela-eta, lurak behar ziren abereak bazkatzeko, eta mugarrotzea formula egokia izan zen: ezkurra eta egurra, biak batera. Egungo pago kiribilduak ondare historiko ere badira, eta Beundera bidean ale politik ikus daiteke.

Ordurako basoak galdurik zuen izaera naturala; baratzeak bailiran, zuhaitz haztegietatik milaka landare aldatzen zituzten urtero udalek, Diputazioak hala aginduta. Ez dakigu zehazki Beunden zein landare aldatu zituzten, baina Seguran, adibidez, 1750-1808 artean 64.940 aldaxka sartu zituzten. Gero desamortizazioa etorri zen –eliz lurren salmenta–, eta azkenik, papererako pinuaren erreinaldia. Hala ere, Aratz-Aizkorriko galtzarbean pagoa sendo errotu da eta gaur arte iraun du. Egiaz, oraingo oihana duela bi mendekoaren hirukoitza da Euskal Herrian.

### Larrea: partzoneria Gipuzkoa eta Araba artean

Beundetik pista eroso bat abiatzen da, zuhaitzen abarotik landa. Basoak eta larreak bat egiten dute linbo horretan. Bidean barna, Unamendiri (898 m) izkin egin eta Garagartzako haitzak laster azalduko zaizkio ibiltariari. Horien babesean, ezkutaturik, artzain txabola bikaina dago. Zegamako asurmenditarren



artaldeak Txurruko punta inguruetan bazkatzen du udan.

Aizkorriko artzaintza, irudi bukolikotik haratago, hamaika familiaren ogibidea da oraindik. Gipuzkoako eta Arabako Partzonerian 8.000 ardi ibiltzen dira; gutxi dira, baina, uda sasoiaren pasatzen duten artzainak, Urbiako zelaietan



Goian, pago mugarrotua Beundera bidean. Ezkerrean, arbol tantaia atsedenekuan.

batik bat. Partzoneria hainbat mendetako elkarlanaren ondorioa da; gaur egun honako herriek hartzen dute parte: Arabako Donemiliaga eta Asparrena, eta Gipuzkoako Idiazabal, Segura, Zegama eta Zerain. Elkarte horren bidez baso eta larreen ustiaketa erregulatu izan da eta iraganean auzolana izan du oinarri, horra zer zioen XX. mendeko euskarazko bando batek bide berriak irekitzeko herritarren betebeharrak: *...garioa ekartzen duten guztiak bearko dute juan lanera datorren asteartean goizeko zortzietarako, eramana bakoitzak pikachoya edo achurra eta peazaya.* Garioa izerdiaren truke, herri-lurren filosofia.

### Begirada bat Txurruko puntatik

Aukera duenak Txurruko puntara (989 m) bueltaxka bat egin lezake. Garagartzara iritsi baino lehen, Ultzamako lepoan, larrean gora zuzen jotzea besterik ez da behar. Otzaurtetik ere igo daiteke zuzenean lepo horretara. Beundeko basoan, zuhaitzen akropoli honetan, galbiderik ez dago. ■



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

Ezlagio poligonoa, 21 - Hernani -Gipuzkoa-

☎ 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com